

*

EUSKAL HERRIA KORRIKA



Bilbo, entzun, Bilbo euskaldun!

Bizkaiko hiriburua igandean inoiz baino euskaldunagoa izan zen Korrikako Azken Jaia zela eta

Hamargarren Korrikako Azken Jaiak orain arteko marka guztiak hautsi zituen joan den igandean. Eguraldi bikainak lagunduta, sekula baino euskaltzale gehiago elkartu ziren Korrikari adio esateko. Hala eta guztiz ere, giza uholdeak ez zituen antolatzaileak ito, eta horrelako kasuetan gertatzen ohi denaren kontra, zer jan eta zer edan ez zen falta izan.

Juan Kruz Lakasta / Bilbo

BILBO sekula baino euskaldunagoa izan zen 10. Korrikako Azken Jaiaren eskutik. Festa ez zen, egiten ohi den bezala, Erakustazokan egin. Haren ordeztuaren Arenal eta Alde Zaharra hautatu ziren jai gune. Horri esker, sekula baino gehiago entzun zen euskara inguru horietan guztietan barrena.

Korrika goizeko bederatzietan heldu zen Bilbora, eta eguerdiko ordu bata eta erdiak arte Bizkaiko hiriburuko auzoetan barrena ibili zen bueltara. Erantzuna hasiera-hasieratik bikaina izan zen. Arriagara heltzeko ordua hurbildu ahala, mardulduz joan zen korrikalari eta aurpegi ezagun kopurua. Alde Zaharrean, adibidez, Pello Salaburuk eraman zuen lekukoa Euskaltzaindiaren izenean, eta ondoren Arrate Athleticeko presidentea aritu zen korrika, Lizarazu, Nuñez eta Dani jokalariekin batera.

Santutxu, Txurdinaga, Otxarkoaga... Korrikalari taldea izugarria zen, eta are handiagoa izan zen Deustuko zubia zeharkatu eta gero. Deustuan HBko Mahai Nazionalak erositako kilometroan mahaikide presoan argakiak izan ziren ikusgai, Indautxun EGUNKARIAko langileak aritu ginen korrika, berdin egin zuten ELA sindikatuak, Bertsolari Elkarteak, Idazleen Elkarteak, Bilboko konpartsek eta euskalgintzan aritzen direnek (Andolin Eguzkitza, Edorta Jimenez, Iñaki Zabaleta...).

Lekukoak AEK-ko Batzar Nazionalako kideen eskuetan eta jendetza handiaren artean egin zituen azken 1.000 metroak. Une biziki hunkigarriak izan ziren, eta bati baino gehiagori malkoek begiak gorritu zituzten. Lekukoa Arriagan sartu zen. Korrika amaitu zen. Arriagako balkoian, Kukubiltxokoan panpinek lagunduta, Joan Mari Torrealdaik lekukoko mezua irakurri zuen, Erramun Osak hitzaldia egin zuen, eta Jon Maiak bertsoa botatu zuen. Ondoren, jaiak hasi zen.

Arriagako ekitaldia amaitu eta berehala, ordu bietan, bertso saioa izan zen Santiago plazan. Xabier Amuriza, Jexux Arzallus,



Bilboko kaleak jendez gainezka zeuden Korrikak zeharkatu zituenean.
XOUSE SIMAL



Unai Iturriaga eta Maialen Lujanbio polito aritu ziren kantari, eta txalo zaparrada beroak jaso zituzten. Dena dela, txaloak eta giroa bera ere askoz beroagoak izan ziren bertso saioaren gibelatik, 15:00etatik aurrera, Arenallean izandako kontzertuan. Einbigu, Keats, Pi LT, Exkixu, Gari eta Latzen aritu ziren kontzertuan. Musikiariak, antza, Korrikara hurbildutako milaka euskaltzaleen gustukoa izan zen: Arenallean paratutako karpa lepo bete zen, antolatzaileei arazo handiak sortzeraino. Adibidez, AEK-ko zenbait kide soinu mahaiaren inguruko hesiari eusten eman behar izan zuten kontzertu osoa; izan ere, jende pilaketa zela-eta bestela hesia erori eta mahaia birrinduko zelako.

Jende mordoa zegoen kontzertuan, baina, halaber, Arenallean gainontzeko eremuetan eta Alde Zaharrean ez zen jenderik falta. Honako pasadizo hau horren erakusle: arratsaldeko laurak

aldera, suhiltzaileen bi kamioik Alde Zaharra zeharkatu behar izan zuten, eta jendea haien atzetik arineketan hasi zen, Korrika! Korrika! oihukatuz. Irudi sanfermineroa, zinez.

Arratsalde partean, 17:30etatik aurrera, Gozategiren kontzertua izan zen erreferentzia garrantzitsua. Anai-arreba trikitilariak zenbait jende aspertu ere egin dute beren kanta gogorazekin. Lasterketa amaitu berrikan Arriagako balkoian Korrika 10 kantarekin play-back-a egiten hasi zirelarik, zenbait txistu entzun ziren. Gehienek, haatik, Gozategitarak maite dituzte, eta gauzak horrela gehienak —ehundaka, milaka, milioika— Plaza Barrian izan ziren, euskal George Dannen kantak gozatzen. Unerik beroena, jakina, Korrika 10 kanta abestu zutenean heldu zen. Hortik aitzina, ekitaldirik ez izan, baina bai giro beroa Alde Zaharreko tabernetan, gaueko ordu txikiak heldu arte.

erreakzioak

Athletic ♦

Athleticen lekukoa Jose Maria Arrate, Dani, Bixente Lizarazu eta Txato Nuñez-ek eraman zuten. Lizarazurentzat lehenbiziko aldia izan zen Korrikan parte hartzen zuena, eta gustura jardun zuen. «Bordelen egoten nintzen eta haraino ez zen heltzen. Hizkuntza bat galdu egin daiteke, eta mota honetako ekintzak eginez hizkuntza ez galtzea lortuko da», azaldu zuen. X

HBko Mahai Nazionala ♦

HBko Mahai Nazionala espetxean edota Europan «lan politikoa» egiten ari dela eta, mahaikideen seintartekoek eraman zuten lekukoa, «azken finean beraiek ere zuzenean pairatzen dutelako errepresioa». HBko kideen hitzetan, «Korrikak euskarak berreskuratzeko duen presa islatu nahi du». X

Euskaldunon Egunkaria ♦

EGUNKARIAren izenean Joxemi Zumalabe zenaren Maddi eta Jon seme-alabek eraman zuten lekukoa. Iñaki Uriak kontseilari-ordezkararen arabera, «Jon eta Maddik lekukoak ordezkatzeko duena ere erreprezentatzen dute, hau da, jarraipena. Bide batez, Joxemi bera ere omendu nahi dugu, ez baitugu ahaztuko». Korrikak EGUNKARIAk berak duen esanahia duela azaldu zuen Uriak, «Euskal Herria euskalduntzeko ekimen potente bat, batez ere kontzientziatze ekimen bat. Eta lan horretan bi gauza adierazten ditu: Euskal Herri osoa zeharkatzen duela eta euskarak aurrera egiteko korrika behar dituela neurriak hartu». X

ELA ♦

Aurreko egunetan entrenatzen ibili eta sasoi onean zen Jose Elorrieta ELAren izenean lekukoa eramateko. Kilometroa aldapa gora izan bazen ere, ELAko idazkari nagusia ondo moldatu zen. Elorrietaren hitzetan, «gure obligazioa da parte hartzea euskararen aldeko horrelako ekimen batean, erdi jai erdi erreibindikazio». X

Bertsozaleen Elkartea ♦

Natxi Aranburu Bertsozaleen Elkarteko lehendakariak eraman zuen lekukoa. Bertsozaleen Elkartek euskararen munduarekin lotura zuzena duenez, koherentzia kontutatzat jo zuen Aranburuk beren parte hartzea. «Gure korrikaldi apurra Bilbon egitea bada nolabaiteko ohorea, herrietatik etorri eta bilbotarrei esatea badirela euskal herriak hortik zehar, hemen larri badago ere», esan zuen. X

Euskalgintza ♦

Euskalgintza osatzen duten hainbat elkartetako ordezkarien eskutik eskura ibili zuten lekukoa. Antonio Campos Ikastolen Elkarteko lehendakariaren hitzetan, «ekintza garrantzitsu asko egiten ditugu euskararen alde eta hau horietako bat da. Euskaldun guztiak biltzen gaituen heinean, oso ona da». X